

A detailed illustration of a man in a dark, heavy coat standing on the edge of a steep, rocky cliff. He is leaning forward, with his right arm raised and hand open, as if reaching out or shouting. A brown hat is shown in mid-air, having just fallen from his head. The cliff face is textured with brown and tan tones, and there are some small green plants growing along the edge. The background is a bright, hazy sky. In the top left corner, there is a logo consisting of a stylized book icon followed by the text 'BOOKTEGI'.

BOOKTEGI

Azken arazoaren abentura

ARTHUR CONAN DOYLE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Azken arazoaren abentura

Itzulpena:

Uxue Goirigolzarri Esturo

Zuzenketa:

Peio Vila Parada

Maketatzailea:

Maider Vazquez Magunacelaya

Bihotza astun dudala hartu dut luma nire lagun Sherlock Holmes jauna nabarmentzen zuten dohain bereziak gogora ekarriko ditudan azken hitz hauek idazteko. Modu nahasian eta, nire ustez, guztiz eskasean, beraren konpainian bizitako esperientzia bitxien berri ematen saiatu naiz; "Zirriborro eskarlata" delakoaren garaian lehen aldiz elkartu gintuen kasualitatekin hasi eta "Itsas Ituna" auzian esku hartu zuen arte —esku-hartze horrek, zalantzarik gabe, nazioarteko gatazka larri bat saihestu zuen—.

Nire asmoa horixe zen, bertan gelditzea eta nire bizitzan hutsune handia utzi duen gertaera hari buruz ezer ez esatea, bi urte igaro arren nekez bete baita hutsune hori. Alabaina, James Moriarty koronelak bere anaiaren oroimena defendatzeko idatzi dituen azken gutunek nire eskua behartu dute, eta ez zait gertakariak jendaurrean gertatu ziren bezalaxe azaltzea beste biderik geratu.

Nik bakarrik dakit auzi honen egia osoa, eta sinetsita nago iritsi dela unea egia hori isilarazteak onik ekarriko ez duena. Nik dakidala, hiru aipamen baino ez dira agertu prentsan: 1891ko maiatzaren 6koa Journal de Genève egunkarian, maiatzaren 7ko Reuters agentziaren oharra egunkari ingelesetan, eta, azkenik, aipatu ditudan azken gutun horiek. Horietatik, lehena eta bigarrena oso laburtuak ziren; azkena, berriz, orain erakutsiko dudan bezala, gertakarien erabateko desitxuratzea da.

Niri dagokit lehen aldiz kontatzea zer gertatu zen benetan Moriarty irakaslearen eta Sherlock Holmes jaunaren artean.

Gogoratuko denez, nire ezkontzaren eta ondoren nire kontsulta pribatua irekitzearen ondorioz, Holmesen eta nire arteko harreman estua zertxobait aldatu zen. Noizean behin niregana jotzen zuen oraindik, bere ikerketetan kide bat nahi zuenean, baina gero eta gutxiagotan gertatzen zen hori, 1890. urtean hiru kasu besterik ez ditudala erregistratuta aurkitu arte.

Urte hartako neguan eta 1891ko udaberri hasieran, egunkarietan ikusi nuen Frantziako gobernuak garrantzi handiko gai batekin arduratu zuela, eta Holmesen bi ohar jaso nituen, Narbonnan eta Nîmesen datatuak; horien bidez ondorioztatu nuen Frantziako egonaldia luzea izango zela.

Hori dela eta, harritu egin nintzen apirilaren 24ko arratsaldean nire kontsultan sartzen ikusi nuenean. Ohikoa baino are zurbilago eta argalago zegoela iruditu zitzaidan.

—Bai, nire indarrak gehiegi xahutu ditut —esan zuen, nire hitzei baino nire begiradari erantzunez—; azkenaldian pixka bat estututa nabil. Axola zaizu pertsianak ixtea?

Gelako argi bakarra mahai gaineko lanpararena zen, irakurtzen ari nintzen lekuan. Holmes hormaren kontra arrastaka mugitu zen eta, pertsianak bat-batean itxita, ondo ziurtatu zituen.

—Zeren beldur zara? —galdetu nion.

—Bada, beldur naiz.

—Zeren beldur?

—Aire-fusilen beldur.

—Holmes maitea, zer esan nahi duzu?

—Uste dut nahikoa ezagutzen nauzula, Watson, jakiteko ez naizela gizon beldurtia. Hala ere, arriskua gainean duzunean ez aitortzea ergelkeria da, ez kemena. Poxpolo bat utziko didazu?

Zigarretaren kea irentsi zuen, efektu lasaigarri hori eskertuko balu bezala.

—Barkatu hain berandu etortzea —esan zuen—, eta gainera, ez-ohiko zerbait eskatu behar dizut: utz iezadazu hemendik gutxira zure etxetik ateratzen lorategiko atzeko horma jauziz gaindituta.

—Baina zer esan nahi du horrek guztiak? —galdetu nion.

Eskua luzatu zidan, eta lanpararen argitan ikusi nuen bi hatz-koskor urratuta eta odoletan zituela.

—Ikusten duzunez, ez da huskeria bat —esan zuen, irribarrez—. Aitzitik, gizon batek eskua hausteko bezain solidoa da. Etxean al da Watson andrea?

—Kanpoan da, bisitan.

—Benetan? Bakarrik zaude?

—Gutziz.

—Orduan, errazagoa zait proposatzea nirekin astebetetz Kontinentera joatea.

—Nora?

—O, edonora. Berdin zait.

Guzti honek oso arraroa zirudien. Holmes ez zen helbururik gabeko oporrak hartzekoa, eta bere aurpegi zurbil eta nekatuak esaten zidan bere nerbioak muturreko tentsioan zeudela.

Galdera nire begietan ikusi zuen, eta hatz-mamiek bat eginda eta ukondoak belaun gainean jarrita, egoera azaldu zidan.

—Seguruenik ez duzu inoiz Moriarty irakaslearen berri izan, ezta? —esan zuen.

—Inoiz ez.

—Bai, horixe da kontu honen genioa eta harrigarria! —oihukatu zuen—. Gizona Londres osoan dabil, eta inork ez du haren berri izan. Horrexek jartzen du krimenaren historiako gailurrean.

—Benetan diotsut, Watson, gizon hori garaituko banu, gizartea berataz libratuko banu, nire karrera gailurrera iritsi dela sentituko nukeela, eta bizitza lasaiago bati ekiteko prest nengokeela. Gure artean, Eskandinaviako errege-familiari eta Frantziako Errepublikari berriki emandako laguntzak egoera erosoan utzi nau; nire gogokoen dudan modu baketsuan bizi naiteke hemendik aurrera, nire ikerketa kimikoetan buru-belarri. Baina ezingo nuke atsedetik hartu, Watson, ezingo nuke nire aulkian lasai eseri, Moriarty irakaslea bezalako gizon bat Londresko kaleetan inpunitate osoz dabilela jakingo banu.

—Zer egin du, bada?

—Bere karrera harrigarria izan da. Jatorri oneko eta heziketa bikaineko gizona da, naturak matematikari dohain apartak eman dizkio. Hogei urte zituela, Teorema Binomialari buruzko tratatu bat idatzi zuen, Europa osoan arrakasta izan zuena. Horri esker, Matematika Katedra lortu zuen gure unibertsitate txikiagoetako batean, eta, itxura denez, karrera distiratsua zuen aurretik. Baina gizonak joera hereditario deabruzkoenak zituen. Kriminal sena zeraman odolean, eta, hori aldatu ordez, bere gaitasun mental harrigarriek areagotu eta infinituki arriskutsuago bihurtu zuten.

—Urrumurru ilunak zabaldu ziren unibertsitate-hirian haren inguruan, eta, azkenean, katedrari uko egitera eta Londresera etortzera behartu zuten; bertan, armadako aztertzaile gisa hasi zen lanean. Hori da munduak dakiena; nik orain esango dizudana, ordea, nik neuk deskubritutakoa da.

—Dakizun bezala, Watson, inork ez du nire kidekoak Londresko kriminal handien mundua ezagutzen. Urteak dira gaizkilearen atzean indarren bat dagoela sumatzen dudala, legearen bidean beti jartzen den eta gaiztoari babesa ematen dion antolakuntza-indar sakon bat.

—Behin eta berriz, mota guztietako kasuetan —falsifikazioak, lapurretak, hilketak— indar horren presentzia sentitu dut, eta haren ekintzak ondorioztatu ditut pertsonalki kontsultatu ez nauten argitu gabeko krimen askotan.

—Urteak eman ditut indar hori estaltzen zuen beloa zeharkatu nahian, eta azkenean iritsi zen unea: haria hartu eta jarraitu egin nuen, mila bihurgune maltzurren ondoren, fama matematiko handiko Moriarty irakasle ohiarengana iritsi nintzen arte.

—Krimenaren Napoleona da, Watson. Hiri handi honetako gaitz guztien erdiaren eta argitu gabeko ia guztien antolatzailea da. Genio bat da, filosofo bat, pentsalari abstraktu bat. Lehen mailako garuna du.

—Mugigabe esertzen da, armiarma bere sarearen erdian dagoen bezala; baina sare horrek mila harizpi ditu, eta hark ondo daki bakoitzaren dardara txikiena ere. Berak ezer gutxi egiten du. Planifikatu besterik ez du egiten. Baina bere agenteak ugariak dira eta bikain antolatuta daude.

—Krimen bat egin behar bada, paper bat ebatsi, etxe bat hustu edo gizon bat bidetik kendu... hitza irakasleari pasatzen zaio, auzia antolatu eta aurrera eramaten da. Agentea harrapa dezakete. Kasu horretan, dirua agertzen da bere bermerako edo defentsarako. Baina agentea erabiltzen duen indar zentrala ez dute inoiz harrapatzen, ezta susmatzen ere.

—Hori izan zen nik ondorioztatu nuen antolakuntza, Watson, eta nire energia guztia hori azaleratzera eta suntsitzera bideratu nuen.

—Baina irakaslea hain trebeki asmatutako babes-neurriez inguratuta zegoen, ezen, nik zer egin arren, ezinezkoa zirudien auzitegi batean zigortzeko frogak lortzea. Ezagutzen dituzu nire gaitasunak, Watson maitea, eta, hala ere, hiru hilabeteren ondoren aitortu behar izan nuen nire pareko intelektuala zen arerio bat aurkitu nuela azkenean.

—Haren krimenek ematen zidaten izua haren trebetasunari nion miresmenean galtzen zen. Baina, azkenean, hanka-sartze bat egin zuen —txiki-txikia—, baina nik hain gertu nuela onartu ezin zuena. Nire aukera izan nuen, eta, puntu horretatik hasita, nire sarea ehundu dut haren inguruan, ixteko prest dagoen arte.

—Hiru egun barru —hau da, datorren astelehenean— gauzak prest egongo dira, eta irakaslea, bere taldeko kide nagusi guztiekin batera, poliziaren esku egongo da. Orduan iritsiko da mendeko auzi kriminal handiena, berrogei misterio baino gehiagoren argitzea, eta urkamendia guztientzat.

—Baina garaia baino lehen mugitzen bagara, ulertuko duzu, azken unean ere ihes egin diezaguketela.

—Hau Moriarty irakasleak jakin gabe egin ahal izan banu, dena ondo egongo litzateke. Baina argiegi jokatzen du horretarako. Nire sareak bere inguruan ixteko eman dudan pauso bakoitza ikusi du. Behin eta berriz saiatu da ihes egiten, baina nik beti moztu diot bidea.

—Diotsut, lagun, norgehiagoka isil horren kontakizun xehatua idatziko balitz, detekzioaren historian izan den eraso-eta-defentsa joko distiratsuena bezala gogoratuko litzatekeela. Ez naiz inoiz hain gora iritsi, eta ez nau inoiz arerio batek hainbeste estutu. Labankada sakonak eman ditu, baina nik beti saihestu ditut.

—Gaur goizean eman ditugu azken urratsak, eta hiru egun besterik ez ziren falta lana amaitzeko. Nire gelan eserita nengoen auziari bueltak ematen, atea ireki eta Moriarty irakaslea nire aurrean agertu denean.

—Nire nerbioak nahiko sendoak dira, Watson, baina aitortu behar dut dar-dar egin nuela nire pentsamenduetan horrenbeste zegoen gizon hura nire atalasean ikustean. Bere itxura ezaguna egiten zitzaidan.

—Oso garaia eta argala da, kopeta zuri eta kurboak domo baten itxura du, eta begiak sakon hondatuta ditu buruan. Bizarrari moztua dago, zurbila, eta aszeta itxura du; irakasle kutsua mantentzen du bere ezaugarrietan.

—Sorbaldak makurtuta ditu ikerketa asko egin izanagatik, eta aurpegia aurrerantz ateratzen zaio, alde batetik bestera poliki-poliki mugituz, narrasti baten modura. Begi zimurtuekin jakin-min handiz begiratu ninduen.

—"Espero baino garapen frontal txikiagoa duzu", esan zuen azkenean. "Ohitura arriskutsua da bataren poltsikoan kargatutako su-armak ukitzea".

—Kontua da, bera sartu bezain laster, nire bizitza arrisku bizian zegoela konturatu nintzela. Harentzat ihesbide bakarra nire ahoa ixtea zen.

—Instant batean, errebolberra tiraderatik poltsikora pasatu nuen, eta oihalaren bidez hura apuntatzen ari nintzen. Bere oharra entzutean, arma atera eta mahai gainean jarri nuen, kargatuta. Irribarrez eta begiak kliskatuz jarraitzen zuen, baina haren begiek arma hori bertan izateaz pozik sentiarazi ninduten.

—"Jakina denez, ez nauzu ezagutzen", esan zuen.

—"Aitzitik", erantzun nion, "uste dut nahiko agerikoa dela ezagutzen zaitudala. Eseri, mesedez. Bost minutu eskain diezazuket zerbait esateko baduzu".

—"Esan behar dudan guztia pasatu zaizu jada burutik", esan zuen.

—"Orduan, baliteke nire erantzuna ere pasatu izana zuretik", erantzun nion.

—"Zure horretan jarraitzen duzu?"

—"Guztiz".

—Eskua poltsikoan sartu zuen, eta nik pistola mahaitik altxatu nuen. Baina ohar-koaderno bat besterik ez zuen atera, non data batzuk idatzita zituen.

—"Urtarrilaren 4an nire bidean gurutzatu zinen", esan zuen. "23an eragotzi egin ninduzun; otsailaren erdialdean kalte handia egiten ari zinen; martxoaren amaieran erabat oztopatu zenituen nire planak; eta orain, apirilaren amaieran, zure etengabeko jazarpenaren ondorioz, nire askatasuna galtzeko arrisku bizian nago".

—"Iradokizunik baduzu?" galdetu nion.

—"Utzi egin behar duzu, Holmes jauna", esan zuen.

—"Astelehenaren ondoren", esan nion.

—"Tira, tira", esan zuen. "Beharrezkoa da zuk atzera egitea. Gauzak modu honetan antolatu dituzu, eta baliabide bakarra geratzen zaigu".

—"Arriskua nire lanbidearen parte da", ohartarazi nion.

—"Hori ez da arriskua", esan zuen. "Hori ezinbesteko suntsipena da".

—"Alde egin behar duzu bidetik, Holmes jauna, edo zapaldu egingo zaitugu".

—"Beldur naiz", esan nion, jaikiz, "elkarrizketa honen plazerak beste nonbait zain ditudan lan garrantzitsuak alde batera utzarazi dizkidala".

—Bera ere jaiki egin zen eta isilik begiratu zidan, burua tristuraz mugituz.

—"Bada, bada", esan zuen azkenean. "Aulkian eseriko nauzula espero duzu. Diotsut ez naizela inoiz aulki horretan eseriko. Ni garaitzea espero duzu. Diotsut ez nauzula inoiz garaituko".

—"Ni suntsitzeko adina trebetasun baduzu, ziur egon nik beste horrenbeste egingo dizudala zuri".

—Hori izan zen Moriarty irakaslearekin izan nuen elkarrizketa berezia. Aitortzen dut efektu desatsegina utzi zuela nire gogoan.

—Watson maitea, Moriarty irakaslea ez da belarrari hazten uzten dioten horietakoa.

—Eguerdi aldera atera nintzen... eta egunean bertan behin baino gehiagotan eraso zidaten. Garbi geratu zen arrisku hurbilean nengoela.

—Ez zara harrituko, Watson, zure gelan sartzean egin dudana lehenengo gauza pertsianak ixtea izan delako.

(...)

Maiatzaren hiruan iritsi ginen Meiringen herrixkara.

Ostatuko jabearen aholkuari jarraituz, Reichenbach ur-jauziak ikustera abiatu ginen.

Leku beldurgarria da, benetan. Zurrusta amildegi ikaragarri baterantz amiltzen da, eta ur-lainoa etxe karraskatu baten kea balitz bezala igotzen da gora. ertzaren ondoan geratu ginen, urrutian lehertzen zen urari begira eta sakonetik zetorren orroa entzuten. Bidea bat-batean amaitzen da hor, eta bidaiariak etorritako bidetik itzuli behar du nahitaez.

Itzultzen ari ginela, mutil gazte suitzar bat korrika etorri zen niretzat gutun batekin. Dirudienez, hoteleko dama ingeles bat hiltzear zegoen eta mediku bat ikusi nahi zuen. Ezin nion uko egin. Holmes bertan geratzea eta ni itzultzea adostu genuen. Aldendu nintzenean, Holmes besoak gurutzatuta ikusi nuen, ur-lasterrari begira. Hura izan zen bera ikusteko nire patuak eman zidan azken aukera.

Itzuli nintzenean, ez zegoen emakume gaixorik. Gutuna azpijoko bat izan zen. Ikaratuta, ur-jauzietara itzuli nintzen korrika. Holmes joana zen. Bere makila bertan zegoen. Borroka baten zantzuak zeuden. Bi oinatze-lerrok ertzera zeramaten. Inor ez zen itzuli. Banekien zer gertatu zen.

Bere zigarreta-estutxea aurkitu nuen, eta barruan, niri zuzendutako ohar bat:

«Watson maitea, —zioen—,

Moriarty irakaslearen adeitasunari esker idazten dizkizut lerro hauek; nire zain dago, gure arteko azken elkarrizketari ekiteko...

Pozten nau pentsatzeak gizartea bere presentziaz libratuko dudala, nahiz eta nire bizitza kostatu.

Esan Patterson inspektoreari paperak nire gelan daudela.

Emaidazu nire agurra Watson andreari.

Izan zaitetz, lagun maitea, zurea benetan,

Sherlock Holmes.

Borroka bat gertatu zen. Elkarri helduta, bi gizonak amildegian behera erori ziren. Haien gorpuak ez zituzten inoiz aurkitu. Hor, ur-orroen sakonean, dautza beren garaiko kriminalik arriskutsuena eta legearen defendatzailerik handiena.